



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko martxoaren 3a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A :

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu pertsonaren duintasunarekiko, askatasun indibidualarekiko, nortasunaren garapen askearekiko eta gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunarekiko konpromiso zalantzarik gabea, gure ordena konstituzionalaren ezinbesteko oinarriak baitira. Nafarroako Alderdi Popularrak talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-26/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala har ditzan hartu beharreko neurriak Nafarroako Foruzaingoa soilik arduratu dadin El Sadar futbol-zelaiaren segurtasunaz bertan egiten diren partida eta lehiaketa guztietan. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (5. or.).
- 11-26/MOC-00040. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita atzera bota ditzan formakuntza enpresetan egiten duten Lanbide Heziketa Dualeko ikasleen arretan egindako murrizketak. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-26/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara nazioarteko zuzenbideari loturiko lurralde ez-autonomia dela, zeinaren gainean Marokoko Erresumak ez baitu inolako subiranotasunik izan inoiz; hortaz, exijitzen dugu amai daitezela hark eginiko okupazio ilegala eta Saharako herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidearen egiazko erabilerari hark jarritako oztopoak. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Unión del Pueblo Navarro, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu du (8. or.).
- 11-26/MOC-00044. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ingurune digitalean ere garatu dezan hezkidetza. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).
- 11-26/MOC-00045. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

—11-26/PES-00006. Galdera, O-NOZeko lan-giroari buruzko azken inkestan sexu-jazarpeneko komentarioak egin direla-eta hartutako neurriei buruzkoa. Idatzizko galdera batzordean erantzuteko eskaera erretiratzea (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—14/2026 Ebazpena, otsailaren 27koa, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiarena, zeinaren bidez Tomás Mena García jauna aldi baterako izendatzen baita Protokoloko atalburu (14. or.).

—11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (14. or.).

—11-26/CCPE-00002. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira 2026. urterako plantilla organikoa eta 2025eko abenduaren 31n zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu pertsonaren duintasunarekiko, askatasun indibidualarekiko, nortasunaren garapen askearekiko eta gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunarekiko konpromiso zalantzarik gabea, gure ordena konstituzionalaren ezinbesteko oinarriak baitira

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu pertsonaren duintasunarekiko, askatasun indibidualarekiko, nortasunaren garapen askearekiko eta gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunarekiko konpromiso zalantzarik gabea, gure ordena konstituzionalaren ezinbesteko oinarriak baitira.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin eta Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean egin dakion jarraipena:

Zioen azalpena

1978ko Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua argi eta garbi ezartzen du ezen pertsonaren duintasuna, pertsonari berez dagozkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen librea, legearen errespetua eta besteen eskubideen errespetua oinarri dituztela ordena politikoak eta gizarteke bakeak. Konstituzioak halaber ezartzen du legearen aurrean berdinak izatearen printzipioa eta sexua dela-eta diskriminatua ez izatearena, eta botere publikoei agintzen die baldintzak ezar ditzen gizabanakoaren eta taldeen askatasuna eta berdintasuna egiazkoak eta eragingarriak izan daitezten.

Printzipio horiek ez dira adierazpen formal huttsak, ezpada Espainiako sistema demokratikoaren funtsezko zutabeak. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oinarritzko eskubidea eta balio gorena da gure ordenamendu juridikoan, zeina indartu egin baita azken hamarkadetan legeen, politika publikoen eta nazioarteko konpromisoen bidez.

Testuinguru horretan, belo integrala —burka eta niqab— espazio publikoetan erabiltzeak erlijio- edo kultura-eremua gainditzen duen gai bat planteatzen du.

Belo integrala mendetasunaren sinbolo bat da, emakumeen ikusezintasunaren instituzionalizazioarena. Testuinguru askotan, egiturazko mendetasunaren adierazpen bat da, emakumearen duintasunaren eta identitaterako, aitorpenerako eta gizarte-bizitzan bete-betean parte hartzeko eskubidearen aurkakoa.

Erlijioa edo kultura ezin dira pertsona guztien oinarrizko eskubideen aurretik jarri. Kultura- eta erlijio-aniztasunarekiko errespetuak badu muga bat: oinarrizko eskubideak eta konstituzio-balioak. Baldin eta praktika batek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ukazioa badakar edo sinbolizatzen badu, estatu demokratikoak bermatu behar du duintasun-, askatasun- eta berdintasun-printzipioak gailentzen direla.

Belo integrala espazio publikoetan erabiltzeak aurrez aurre talka egiten du gizarte demokratiko aurreratu baten balio eta printzipioekin, non emakumeek askatasunez erabaki baitezakete beren bizitzari, irudiari eta esfera publikoan duten parte-hartzeari buruz. Gainera, espazio komunetan eta zerbitzu publikoetan identifikazio pertsonala egitea zailtzen du, eta bizikidetzaren eta segurtasun juridikoaren oinarrizko printzipioei eragiten die.

Espainiako Konstituzioak argi eta garbi babesten ditu hemen aipatzen diren oinarrizko eskubide eta askatasunak. Nazioartean, hainbat itun, adierazpen eta konbentziok, hala nola Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioak (CEDAW), emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa ezartzen dute, eta estatuei neurri aktiboak hartzeko betebeharra ezartzen diete, haien eraginkortasuna bermatzeko.

Europar Batasunak, hainbat herrialdek, hala nola Frantziak, Belgikak, Austriak, Herbehereek, Danimarkak, Bulgariak eta Suitzak, eremu publikoetan beloaren erabilera integrala arautzen edo debekatzeko legeak onetsi dituzte, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak babestuta eta Europako Kontseiluan eta Europar Batasunean defendatutako printzipio erkideekiko koherentziaz.

Espainia, zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa den aldetik, ezin da eztabaida horretatik kanpo geratu. Erakunde publikoei dagokie konstituzio-balioen defentsan jarrera argia hartzea, eta,

kasua bada, espazio publikoetan emakumeen eta gizonen arteko duintasunaren, askatasun indibidualaren eta berdintasun eraginkorraren printzipioak gailentzen direla bermatzen duen erregulazioa sustatzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki-proposamen hau onesten du:

1. Nafarroako Parlamentuak berresten du pertsonaren duintasunarekiko, askatasun indibidualarekiko, nortasunaren garapen askearekiko eta gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunarekiko konpromiso zalantzarik gabea, gure ordena konstituzionalaren ezinbesteko oinarriak baitira.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du belo integrala (burka eta niqab-a) eta aurpegia osorik nahiz zati batean estaltzen duten beste elementu batzuk espazio publikoetan erabiltzea ez dela bateragarria duintasunarekin, askatasunarekin eta emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunarekin, emakumearen ikusezintasunaren eta zapalkuntzaren sinboloa baita.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Gorte Nagusiak premiatzen ditu belo integralaren eta aurpegia estaltzen duten beste elementu batzuk espazio publikoetan erabiltzeari buruzko estatu-mailako araudi bat susta dezaten, Espainiako Konstituzioarekin, Espainiak berretsitako nazioarteko itunekin eta Europako jurisprudentziarekin bat, betiere oinarrizko eskubideekiko errespetua bermatuta.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du gizonen eta emakumeen berdintasuna, integrazioa, bizikidetzeta eta gure gizartearen oinarri diren balio demokratikoekiko errespetua sustatzen duten politika publiko aktiboak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa duela.

Iruñean, 2026ko otsailaren 20an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-26/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita berehala har ditzan hartu beharreko neurriak Nafarroako Foruzaingoa soilik arduratu dadin El Sadar futbol-zelaiaren segurtasunaz bertan egiten diren partida eta lehiaketa guztietan

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala har ditzan hartu beharreko neurriak Nafarroako Foruzaingoa soilik arduratu dadin El Sadar futbol-zelaiaren segurtasunaz bertan egiten diren partida eta lehiaketa guztietan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru-parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Jarraipena Barne Batzordean eginen da.

Zioen azalpena

Geroa Bai-n etengabe eta anbiguotasunik gabe defendatu dugu Nafarroako Foruzaingoa polizia integralaren ereduari jarraitu behar diola (eta horren aldeko apustua egin dugu), Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 15. artikulua hori ezartzen baitu. Horren arabera, Foruzaingoa polizia integrala eta erreferentziakoa da, eta Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan betetzen ditu bere eginkizunak.

Ondorioz, inkoherentea eta justifikaezina da, gaitasun operatibo egiaztatua duen polizia-kidego propio bat egonik, Estatuko indarrek funtzio jakin batzuek betetzea oraindik Nafarroako autogobernuari zuzenean eragiten dioten eremuetan.

Funtzio horien artean dago kirol-ekitaldietako segurtasuna, zeina Foruzaingoa normaltasun eta eraginkortasun osoz hartzen ari baita bere gain Foru Komunitatean egiten diren hainbat gertakari-tan. Adibidez, Navarra Arenan 2025eko azaroaren 5etik 16ra bitartean egin zen Tranpolin Jauzien Munduko Txapelketan, Foruzaingoaaren memoriek erakusten dutenez.

Hala ere, Nafarroako kirol-esparru nagusiak justifikaziorik gabeko salbuespena izaten jarraitzen du. Polizia Nazionalak El Sadar futbol-zelaiaren segurtasuna bere gain hartzen jarraitzen du, eta hori anomalia bat da, Foruzaingoaaren izaera integralarekin eta gure autogobernuaren garapen eraginkorarekin bateraezina.

Geroa Baik behin eta berriz eskatu du eskumen hori baliatzea. 2023-2027ko aldian Nafarroako Gobernua eratzeko programa-akordioak —«Nafarroako Gobernu progresista eta plural baterako programa-akordioa»— berariaz jasotzen zuen, desadostasunen atalean, Foruzaingoa funtzio hori kirol-lehiaketetan eta, bereziki, El Sadar futbol-zelaian, eskusiboki erabiltzearen aldeko apustua, eta uste dugu hor ez egoteak eskumen propioei de facto uko egitea dakarrela eta Nafarroako poliziera eduan aurrera egiteko borondate politikorik ez dagoela.

Eskumen hori erabat erabiltzea ez da gai sinboliko bat, baizik eta autogobernuari eta Nafarroan gertatzen denaren gaineko erantzukizun instituzionalari lotutako eskakizun demokratiko bat. Jende asko biltzen den kirol-ekitaldi baten segurtasunak erabaki operatiboak eta erantzukizun politikoak eskatzen ditu, eta horiek Nafarroako erakundeen kontrolpean egon behar dute.

Osasunaren eta Real Madridenten arteko partidaren ondoren izandako gertaera larriek, sare sozialetan zabal hedatutakoek eta klubak, zaleek eta herritarren zati handi batek zalantzan jarritakoek, agerian uzten dituzte egungo ereduari eustearren arriskuak. Polizia Nazionalaren jarduna desegokia eta neurritz kanpokoak izan zen, polizia propio baten ezaugarri diren hurbiltasun-irizpideetatik urrun. Gainera, gertatutakoaren gaineko erantzukizun politikoa Nafarroako erakundeen esku-

menetik kanpo geratu zen, Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzaren balorazioen mende soilik, zeinak jokamolde hura autokritikarik gabe bermatu baitu.

Egoera hori bateraezina da autogobernu eraginkor batekin eta Nafarroako herritarrek duten eskubidearekin, hau da, beren polizia propioak kudea dezala segurtasuna Nafarroako estadio nagusian, Nafarroako erakundeen kontrolpean. Foruzaingoa El Sadar futbol-zelaiaren segurtasuna bere gain hartzea ez da aukera politikoa soilik, autogobernua baliatzea eta errespetatzea ere bai baita.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala har ditzan hartu beharreko neurriak Nafarroako Foruzaingoa soilik arduratu dadin El Sadar futbol-zelaiaren segurtasunaz bertan egiten diren partida eta lehiaketa guztietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 25ean

Foru-parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

11-26/MOC-00040. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita atzera bota ditzan formakuntza enpresetan egiten duten Lanbide Heziketa Dualeko ikasleen arretan egindako murrizketak

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita atzera bota ditzan formakuntza enpresetan egiten duten Lanbide Heziketa Dualeko ikasleen arretan egindako murrizketak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestakuntza enpresetan egiten duten Lanbide Heziketa Dualeko ikasleen arretan egindako murrizketak atzera bota ditzan.

Zioen azalpena

Baldin eta zerbait izan bada funtsezkoa Nafarroako enpresa-garapenean eta, beraz, garapen sozialean, hori lanbide-heziketako sistema bikaina edukitzea izan da. Arlo guztietan ondo prestatutako profesionalak izateko aukerak ahalbidetu zuen nekazaritzakoa baino ez zen gizarte batetik Nafarroa berritzaile eta puntako batera igarotzea automozioaren, osasunaren edo energia berriztagarrien arloetan.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Legeak erabateko aldaketa ekarri zuen Lanbide Heziketaren antolaketan. Enpresek, lantokiko prestakuntzaren bidez, ikasleen prestakuntzan parte hartzearen ondorioz, birdefinitu egin dira prestakuntza-moduluak eta doitu egin dira ordutegiak eta irakasleen eginkizunak, lege horren bidez definitu zen lankidetzaren eta interakzio-eremu horretan.

Gaur ez bezala, 3/2022 Lege berriarekin 2/2002 Legearen garapena egin zen enpresa-sektoreen, irakaskuntzako sindikatuen eta ikastetxeen partehartze aktiboarekin, Hezkuntza Departamentuaren

gidaritzapean. Ez zen egon ez pankartarik, ez grebarik, ez itxialdirik, ez zen mahai sektorialik eskatu, ehunka deitu zirelako, nahiz eta berritik taxutu behar izan ziren LHko titulu guzti-guztiak eta abian jarri behar izan zen ordutegiaren banaketa berria eta esleitu behar zitzaizkien tituluak ikastetxeei.

Jarduteko modu hori ez da errepikatu 2/2023 Legetik heldu den LH Duala abian jarri denean. Ez da elkarrizketa eta parte-hartze prozesurik egon. Hezkuntzako kontseilaria eta Nafarroako Gobernua beren buruari dominak jartzera mugatu dira, LH Duala osorik ezarri izanaz eta 16.000 ikasle izateaz harroki agertzeraz. Halere, enpresetako egonaldiaren arreta-orduak nabarmen murrizteagatik irakasleek protesta egin dutenean, erantzuna hasieratik izan da 2025-2026ko ikasturtean aurreko ikasturtean baino 200 ordu gehiago eman zaizkiela ikastetxeei.

Horregatik, ikasturte hasieratik, irakasleek mobilizazioak egin dituzte bata bestearen ondotik; azkenean, 3 greba-egun egin dituzte eta ikastetxeetako irakasle askok babestutako manifestu bat zabaldu dute, agerian jartzeko legea urri ezarri dela eta Hezkuntza Departamentuaren aldetik isiltasuna, antolakuntza eza eta konpromiso eza baizik jaso ez dutela, sistema berria kudeatzeko guztiz eskasak diren neurriak inposatu baititu.

Argi dago ezen, horrela jarraituz gero, gure Lanbide Heziketaren kalitatea oso kalteturik aterako dela. Gaur egiaztatzen ari gara ez dagoela behar adinako irakasle-kargarik LH Dualaren kudeaketari

aurre egiteko; are gehiago, ikastetxeak mugatuta daude ikasle guztiak beren prestakuntza osatu dezaten enpresa egokietan jartzeko. Lan horiek egiteko, LHko ikastetxeak kudeatzeko ezinbestekoak diren beste ordu batzuk erabiltzen ari dira, eskola-orduak, ordu osagarriak, zentroaren proiekturako orduak, prestakuntzakoak, barneratze-orduak...

Horregatik guztiagatik, Nafarroaren ongizaterako oinarri izan den Lanbide Heziketarako mehatxu den egoera larri hau ikusita:

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Hainbat lasterren eta heldu den ikasturterako atzera egin dezan enpresetako egonaldiak kudeatzeko aldera irakasleek dauzkaten orduetan egin diren murrizketetan (ikasturte bakoitzeko 3 ordu edukitzetik 0,5 ordu edukitzera igaro dira), lan hori egiteko behar adina ez direlako, ezta hurrik eman ere.

- Ganorazko negoziazio-prozesu bat abiaraz dezan, ordezkari sindikalen, enpresen ordezkarien eta ikastetxeen parte-hartze aktiboarekin, zeinean definituko baitira lege berriaren ezarpena eragiten ari den arazoak, zehaztuko baita zer baliabide behar diren eta hartuko baitira hartu beharreko erabakiak legea behar bezala garatzeko.

Iruñean, 2026ko otsailaren 25ean

Foru-parlamentaria: Pedro González Felipe

11-26/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara nazioarteko zuzenbideari loturiko lurralde ez-autonomoa dela, zeinaren gainean Marokoko Erresumak ez baitu inolako subiranotasunik izan inoiz; hortaz, exijitzen dugu amai daitezela hark eginiko okupazio ilegala eta Saharako herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidearen egiazko erabilerari hark jarritako oztupoak

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, EH BILDU NAFARROA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Unión del Pueblo Navarro, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara nazioarteko zuzenbideari loturiko lurralde ez-autonomoa dela, zeinaren gainean Marokoko Erresumak ez baitu inolako subiranotasunik izan inoiz; hortaz, exijitzen dugu amai daitezela hark eginiko okupazio ilegala eta Saharako herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidearen egiazko erabilerari hark jarritako oztupoak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Parlamentu honetako Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Otsailaren 20an eta 21ean, “Bakea eta Askatasuna Mendebaldeko Saharako herriarentzat” Taldearteko parlamentarioen XXIX. Konferentzia egin zen Nafarroako Parlamentuan, eta honako adierazpen hau onetsi zen:

Iruñean bildurik, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan “Bakea eta askatasuna Mendebaldeko Saharako herriarentzat” Taldearteko parlamentarioen XXIX. Konferentziak, Espainiako Estatuko autonomia-erkidegoetako parlamentuen izenean, 2026ko otsailaren 21ean berretsi egiten du Saharako herriaren askatasunezko etorkizunaren aldeko bere konpromisoa, eta honako adierazpen hau onesten:

Oinarri harturik aurreko konferentzietan lortutako akordio garrantzitsuak, eta Palmako 1992ko Konferentziaz geroztik denboran zehar onetsitako adierazpenen edukia berretsita, Konferentziak berriro adierazten du ez dagoela ados Espainiako Gobernuak lehendakariak Mendebaldeko Saharari dagokionez izan duen erabateko jarrera-aldaketa-rekin.

Halaber, berriro diogu Fronte Polisarioa dela Mendebaldeko Saharako herriaren ordezkari bakar eta zilegia, eta halakotzat dagoela nazioartean aitortua.

Konferentziak beste behin salatzen du ilegala dela marokozko Mendebaldeko Saharan egotea; hortaz, ezin da egin inolako ekintza sozial, politiko edo ekonomikorik, Saharako herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidea eragozten duenik.

Nabarmetzen dugu prozesu politikoak Mendebaldeko Saharako gatazka ebazteko duen zentraltasuna, Segurtasun Kontseiluaren 2797. ebazpenean jasotakoa.

Azpimarratu nahi dugu zeinen garrantzitsuak diren parlamentuek egindako misioak, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta saharar populazio zibilaren giza eskubideak eta, bereziki, adierazpen-, bilera-, elkartze- eta manifestazio-eskubideak, zertan diren ikuste aldera eginikoak.

Errefusatu egiten dugu Europar Batasunaren eta Marokoren arteko akordio komertzial berri baten onespina, kalte egiten baitio Saharako herriak autodeterminaziorako eta independentziarako daukan eskubideari. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia finkatua kontuan harturik, Fronte Polisarioarekiko zuzeneko negoziazioa da lurraldean interes ekonomikoak bermatzeko bide bakarra.

Konferentziaren ustez, funtsezkoa da 49. EUCOCOn egindako lana (Parisen izan zen, 2025eko azaroaren 28an eta 29an), eta bat egiten dugu amaierako manifestuarekin, bai eta hango talerretako konklusioekin ere.

Berretsi egiten dugu Gdeim Izik-eko preso politiko zibilekiko nahiz haien senideekiko elkartasuna, eta berehala aske utziak izan daitezten exijitzen dugu.

Oinarritzat harturik Taldearteko parlamentarioen konferentzia honetan jorratutako auziak, eta egungo testuinguruaren premiei erreparatuta, honako hau erabakitzen dugu:

- Jasota uztea Mendebaldeko Sahara nazioarteko zuzenbidearen araberrako lurralde ez-autonomia dela, zeinaren gainean Marokoko Erresumak ez baitu inolako subiranotasunik; hortaz, haren okupazio ilegalak amai dadin exijitzen dugu, bai eta Saharako herriaren autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea egiaz baliatu ahal izateko oztipoak ere.

- Erreferentziatzen hartzen jarraitzea Auzitegi Nazionalaren autoa, zeinak Espainia de iure Sahara Mendebaldearen "potentzia administratiboa" dela adierazten baitu.

- Marokoko Erresumari exijitzea berehala askatu ditzala saharar preso politikoak eta kontzientziakoak, eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza eskubideen urraketa sistematikoak amai daitezela; berezi-bereziki, espetxeetan.

- NBEren gidaritzapean abian dagoen prozesu politikoari sostengu ematea, zuzentasunezko soluzio iraunkor eta alde guztientzat onargarri bat erdieste aldera, zeinak bermea emanen baitio saharar herriak autodeterminaziorako duen eskubideari. Orobat, NBEk Genevan duen Giza Eskubideen Kontseilua premiatzen da Mendebaldeko

Sahararentzako giza eskubideen errelatore bat izenda dezan.

- Salatzen jarraitzea Marokok natura-baliabideak ilegalki espoliatzen dituela, eta han jardun diren enpresei exijitzea nazioarteko zuzenbidea eta, finean, Mendebaldeko Saharako herriaren eskubide legitimoak errespeta ditzatela. Halaber, eragile politiko eta ekonomikoak premiatzea Fronte Polisarioarekiko zuzeneko negoziazioak abiaraz ditzaten.

- Berrestea bidezkoa dela MINURSOk eginkizun gehiago har ditzan bere gain, Mendebaldeko Saharan hain baita larria giza eskubideen egoera. Hortaz, Nazio Batuek premiatzen ditugu Misioari ahalmena eman diezaioten giza eskubideak Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan zaintzeko, sustatzeko eta babesteko.

- Saharar Emakumeen Batasun Nazionalarekiko gure lankidetzaren politikoa indartzea, haien errefuxiatuen kanpalekuetan nahiz lurralde okupatueta betetzen duten zeregin oinarritzako eta erabakigarria dela-eta. Halaber, haien ikusezintasun-egoeraz ohartarazi nahi dugu, lurralde okupatueta giza eskubideen urraketa biktima baitira behin eta berriro.

- Erakunde publikoak premiatzea laguntza solidario, ekonomiko eta humanitarioa areagotu eta ematen jarrai dezaten, hala Tindufeko kanpalekuekiko errefuxiatuei nola lurralde okupatueta sahararrei. Taldearteko Konferentziak, Espainiako Estatuak Mendebaldeko Saharako egoeran daukan erantzukizun legal eta politikoaz jabetuta, Espainiako Gobernuari berriz ere dei egiten dio, honako hau egin dezan:

- Marokoko Erresumari exijitzea Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza eskubideak zorrotz errespetatzeko eta sahararrek pairatzen dituzten eskubide-urraketak bukatzeko. Eta halaber premiatzen du tinko lan egin dezan Nazio Batuen eta Europar Batasunaren barruan, MINURSOren eginkizuna heda dadin giza eskubideen zaintza, sustapen eta babesera.

- Fronte Polisarioaren ordezkari estatus diplomatikoa emateko bidean aitzina egin dezan, nazioartean Mendebaldeko Sahararen ordezkari bakar eta legitimo modura errekonozituak izan daitezten.

- Sahararekiko lankidetzaren eta laguntza humanitarioa areagotu ditzan, hala errefuxiatuen kanpalekuetan nola Fronte Polisarioaren jurisdikziopeko lurraldeetan, Estatu Batuek nazioarteko hainbat organismoari funtsak erretiratu izanak daukan eragin larria arintzearen.

Ezinbestekotzat jotzen dugu Espainiako Lankidetzeta Agentziak eginiko azken ekarpenek ezarritako ildoari jarraipena ematea.

Azkenik, Nafarroako Taldeartekoen XXIX. Konferentziak, gizaratearen eginkizuna dela-eta:

- Hedabideak premiatzen ditu gizarteak ematen dion garrantzi bera eman diezaioten Mendebaldeko Saharako gataskari, eta pertsona solidarioei eskatzen die sare sozialak balia ditzaten Mendebaldeko Sahararen egoeraren berri emateko eta salatzeke.

- Gure parlamentuen eta Saharako Parlamentuaren arteko harreman instituzionalak eta politikak errazteko konpromisoa hartzen du. Horregatik, bere babesa ematen dio saharar herriaren aldeko parlamentari-sareari.

- Esparru unibertsitario, judizial eta politiko-administratiboan ekimenak egin daitezzen eskatzen du, Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zertan diren erakusteko.

- Bere esker ona adierazi nahi die Mendebaldeko Sahararen autodeterminazio-eskubidearen alde egunero lan egiten duten entitate, elkarte, federazio eta kolektibo sozialei.

- Aitortu egiten du haurrei harrera egiteko "Oporrak bakean" programaren eta "Madrasa" proiektuaren funtsezko garrantzia, eragin positibo handia baitu eta espainiar Estatuko eta Saharako herritarren arteko elkartasun-harremanen sinboloa baita.

Amaitzeko, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetao sahararrei babesa emateak lehentasuna duela iritzita, 2026an zehar eutsi eginen zaio giza eskubideen behaketa-misioak egiteari.

Halaber, Konferentzia konprometitu egiten da parte hartzera bai Madrilan eginen den EUCOCoren 50. Konferentzian bai Aljeriako Parlamentuak antolatuta bertan eginen den Parlamentuarteko Konferentzian.

*Nafarroako adierazpen hau honako hauei bidaliko zaie: Nazio Batuen idazkari nagusiari, Geneva-ko Giza Eskubideen Kontseiluari, Espainiako Errege Etxeari, Espainiako Gobernuari, Europako Batzordeari, Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariari, Saharako Parlamentuari (Saharako Kontseilu Nazionala), Marokoko Gobernuari, Afrikako Batasunari, Europako Parlamentuari, Afrikako Parlamentuari, Espainiako Kongresu eta Senatuari eta autonomia-erkidegoetako parlamentuei.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak babestu eta bere egiten du "Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean" taldeartekoen XXIX. Konferentziak onetsitako adierazpena.

Iruñean, 2026ko otsailaren 25ean

Foru-parlamentariak: Carlos Guzmán Pérez, Pedro José González Felipe, Irati Jiménez Aragón eta Isabel Aramburu Bergua

11-26/MOC-00044. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ingurune digitalean ere garatu dezan hezkidetzeta

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurune digitalean ere garatu dezan hezkidetzeta.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea

buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernua hezkidetzeta ingurune digitalean ere garatzera premiatzen duen honako mozio hau aurkeztu du, 2026ko martxoaren 5eko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Eskatzen dugu Lehendakaritza eta Berdintasuneko Batzordean egin dadila mozio hau betetzeari buruzko jarraipena.

Zioen azalpena

Heldu den martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, kaleetan, lantokietan, ikasgeletan eta sareetan elkartuko gara berriro. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko aldarrikapen eta borrokarako eguna izanen da, lortutako aurrerapen bakoitza ospatzeko, baina, batez ere, oraindik egiteko dagoen guztia salatzen eta aldarrikatzeko.

Mende hau justiziarena eta emantzipazioarena izan behar zen, baina berriz isiltasunera eraman nahi gaituzten politika erreakzionarioak nabarmen aurrera egiten ari direla ikusten dugu. Atzerakada horien lehen lerroan gaude emakumeok. Ameriketan, Errusian, Ekialde Ertainean, Europan eta Espainian, ultraeskuina erakundeetan dago eta berdintasuna eskubide bat ez baizik eta pribilegio bat dela dioen mezua zabaltzen du. Nafarroan, ultraeskuinaren presentzia testimoniala da, baina haren mezuak modu arriskutsuan zabaltzen ari da eskubi herabestia, bere hauteskunde-lehian haren diskurtsoa erosten baitu zalantzarik egin gabe.

Emakumeen eskubideetan atzera egiten den urrats bakoitza kolpe bat da demokraziarentzat berarentzat. Eta feminismoa, emakumeak subjektu aktibo gisa bere funtsaren erdigunean jartzen dituen, internazionalista da berez.

Gure lana, gure harremanak eta gure emozioak antolatzen dituzten pantailen, sareen eta algoritmoen munduan bizi gara. Iraultza digitalak botere-espazioak aldatu ditu. Espazio berri horrek emakumei ahalbidetu die komunitatea eta erresistentzia sortzea. Baina, era berean, emakumeen aurkako jazarpena izugarria da western digital basati horretan (ezin beste modu batez izendatu). Manosfera digitala jazarpen- eta gorroto-sare antolatu bihurtu da, emakumeak espazio publikotik botatzea bilatzen duena. Indarkeria digitala ez da arinagoa birtuala delako, eta berdintasun digitalik gabe ez da egiazko berdintasunik egonen.

Sare sozialak haurren eta nerabeen sozializazio-gune bihurtu dira. Beraz, beraien kontzientzia eraikitzen duten lekua aldatu baldin bada, hezkuntza ere aldatu egin beharra dago, eta hezkidetzak premiazkoa du esfera digitalera iristea; diskurtso matxisten aurrean pentsamendu kritikoa eratu behar du eta sarean barrena dabilzan gorputzak, algoritmoak eta mezuak begirada feministarekin begiratzen irakatsi behar du.

Eduki pornografikoek eta plataforma batzuek, OnlyFans kasu, emakumeak salgaiak balira bezala tratatzen dituzte, eta, oso gaztetatik, sexu-hezkuntzaren iturri nagusi bihurtu dira gazteen belaunaldi oso batentzat.

Garai teknologikorako agenda feminista bat behar dugu, gure eskubideak blindatuko dituzten politika zehatzekin. Feminismoak presente egon behar du adimen artifizialari, zibersegurtasunari eta datu eta eskubide digitalei buruzko eztabaidetan.

Neskatilak aukera eta eskubide berekin haziko badira, ezin ditugu mutikoak fokutik kanpo utzi. Guztiz ezinbestekoa da maskulinitate berrietan hezteak azken hamarkadek hori frogatu digute. Emakumeek ez dute aurrera eginen gizonen ere berdintasunerako bidea egiten ez badute. Premiazko zeregina da gazteen arteko harremanak matxismoa jokoan kanpo garatzen den harreman bihurtzea.

Horregatik guztiagatik, Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak gobernu zentrala premiatzen du plataformei eta algoritmoei buruzko araubidean aurrera egin dezan, korporazio teknologikoek beren gain har dezaten zabaltzen dituzten edukien eta eduki horiek gure bizitzetan duten eragiren gaineko erantzukizuna.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gainerako erakundeekin lankidetzan, irakasleei eta familiei zuzendutako prestakuntza-ekintza gehiago egin dezan, haurrak eta nerabeak ingurune digitaleko eduki sexualizatu eta bortizetatik babesteko behar diren tresnak eduki ditzaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du begirada feminista txerta dezan zibersegurtasunaren, adimen artifizialaren, datuen eta eskubide digitalen inguruan egiten diren eztabaidak guztietan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sentsibilizazio-kanpainak egin ditzan neska-mutikoak kontzientziatzeko eta babesteko sare sozialetan mezu matxisten, sexu-jazarpenaren, ezkutuko prostituzioaren eta genero-indarkeriaren aurrean.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lanean jarrai dezan eremu digitalean ere zabaltzeko eta sakontzeko Skolae hezkidetzak programa.

Iruñean, 2026ko otsailaren 26an

Eleduna: Ainhoa Unzu Garate

11-26/MOC-00045. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoa abuztuaren 22an sartu zen indarrean.

Azken xedapenetako seigarrenak 3/2007 Lege Organikoa aldatzen du, honako xedapen honekin:

1. Berdintasun-agenteen lanbidean sartuko dira genero-ikasketen, ikasketa feministen eta berdintasun-politika publikoen arloko gradu-

graduondoko edo baliokide den titulu bat daukaten pertsonak, irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotakoa (errege dekretu horren bidez, unibertsitate-ikasketen eta haien kalitatea ziurtatzeko prozeduraren antolamendua ezartzen da), edo berdintasun-politikak taxutzen garatzen edo ezartzen esperientzia handia eta kreditatua daukatenak.

2. Unibertsitate-ikasketen eta haien kalitatea ziurtatzeko prozeduraren antolamendua ezartzen duen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egin eta onetsiko dira titulu hori lortzeko ikasketa-planak.

3. Sei hilabeteko epean, Gobernuak, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak proposatuta, berdintasun-agentearen titularen izaera ofiziala ezartzeko proposamena onetsiko du, bai eta erregelamendu bidez garatu ere, eta ministro agindu bidez zehaztuko ditu lanbidean jarduteko gaitzen duten tituluak egiaztatzeko eta esperientzia egiaztatzeko betekizunak.

Xedapen horren hirugarren puntuak ezartzen duen sei hilabeteko epea bete ez denez, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dut:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premia-tzen du berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du ondotik azterketa bat egin dezan berdintasun-agenteek Nafarroako administrazioetan dituzten eginkizunei eta sartzeko baldintzei buruz.

Nafarroan, 2026ko otsailaren 26an

Foru-parlamentaria: M.^a Isabel Olave Ballarena

F saila:
GALDERAK

11-26/PES-00006. Galdera, O-NOZeko lan-giroari buruzko azken inkestan sexu-jazarpeneko komentarioak egin direla-eta hartutako neurriei buruzkoa

IDATZIZKO GALDERA BATZORDEAN ERANTZUTEKO ESKAERA ERRETIRATZEA

2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Leticia San Martín Rodríguez andreak idatzizko galdera batzordean erantzuteko egindako eskaera erretiratu izana. Galdera, O-NOZeko lan-giroari buruzko azken inkestan sexu-jazarpeneko komentarioak egin direla-eta

hartutako neurriei buruzkoa, 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

14/2026 Ebazpena, otsailaren 27koa, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiarena, zeinaren bidez Tomás Mena García jauna aldi baterako izendatzen baita Protokoloko atalburu

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko uztailaren 26an harturiko erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko Erregelamenduaren aldaketa onetsi zuen (95. NPAO, 2021-08-06koa). Erregelamendu horren 10. artikulua bidez, Protokoloko Atala sortu zen, halako moduan non bere eginkizunak zuzenean Legelari Nagusiaren agindupean beteiko baititu eta atal horren burutza laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera beteko baita, Nafarroako Parlamentuko Teknikarien Kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehia-keta eginez.

Halaber, Erregelamendu horren laugarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuarekin bat, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek atalburutzak aldi baterako bete ahal izanen dituzte, Legelari Nagusiak izendatuta, zeinak kargutik libreki kendu ahal izanen baititu, modu horretan berean.

Protokoloko atalburutza merezimendu-lehiaketarako deialdi baten bidez betetzen ez den bitartean, beharrezkoa da eginkizun horietan aldi baterako arituko den teknikaria izendatzea.

Horregatik, eta Parlamentuko Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduaren laugarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoari jarraikiz,

EBAZTEN DUT:

1. Teknikarien Kidegoko funtzionario Tomás Mena García jauna aldi baterako izendatzea Protokoloko atalburu, 2026ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 27an

Legelari nagusia: Silvia Doménech Alegre

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluaekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko apirilaren 16ko 15:00etara arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/CCPE-00002. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira 2026. urterako plantilla organikoa eta 2025eko abenduaren 31n zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda

Abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontuen Ganberak eskumen osoa du bere gobernuari, barne araudiari eta bere zerbitzuko langileei dagokien guztiaren gainean. Halaber, 32.2 artikulua ezartzen du foru lege horretan aurreikusten ez den guztian Nafarroako Parlamentuaren barne-araubideko eta -governuko estatutua aplikatuko dela, ordainsari-araubidea barne.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14. artikulua ezartzen du urtero-urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak horri buruzko txostena eman ondoren, Ganberako langileen plantilla organikoa, lanpostuen zerrendan adierazita kasuan kasuko maila, betekizunak, ordainsari osagarriak eta, kasua balitz, izendapen askez bete behar ote diren. Halaber, 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero prestatuko duela Legebiltzarreko funtzionario guztien zerrenda bat, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren araberrakoa, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio-egoera. Komeni da, orobat, langile kontratudunei eta zerbitzu eginkizunetan nahiz prestakuntzan ari direnei buruzko informazio osagarria eranstea.

Ganberaren idazkari nagusiak 2026rako plantilla organikoaren proposamen bat aurkeztu du, bai eta Ganberaren zerbitzupeko 2025eko abenduaren 31ko langile funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda ere. Proposamen horrek Kontuen Ganberako administratzailearen, kontu-hartzailearen eta Langileen Batzordearen aldeko txostenak jaso ditu. Proposamen horretan aurreikusten da legelari-lanpostu bat sortzea eta informatikako

goi-mailako teknikariaren lanpostu-osagarria 0,10 igotzea, maila bereko beste lanpostu batzuekin parekatzeko.

Hartara, lehendakaria naizen honek, nire ahalmen nahiz eskumenak eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 1985eko urtarrilaren 23ko Erabakiaren bidez eskuordetu zaizkidan eskuduntzak baliatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena. Legelari-lanpostu bat sortzea, A mailakoa eta plantilla organikoan 1204 zenbakia duena.

Bigarrena. Informatikako goi-mailako teknika-riaren lanpostu-osagarria % 0,10 igotzea.

Hirugarrena. Nafarroako Kontuen Ganberako 2026. urterako plantilla organikoa, zeina ebazpen honen 1. eranskin gisa atxikirik baitago, onestea.

Laugarrena. 2025eko abenduaren 31n Nafarroako Kontuen Ganberaren Zerbitzuan zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda onestea —ebazpen honen 2. eranskin gisa atxikirik dago—, bai eta 3. eranskinean atxikitzen den informazio osagarria ere.

Bosgarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan, eta Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 26an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria:
Ignacio Cabeza del Salvador

1. eranskina

Kontuen Ganberako plantilla organikoa 2026. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskara maila	Izendapen librekoak	Esklusibitate	Lanpostua	Mailako osagarria	Osagarri berariazkoa
Lehendakaria	1		P		X				
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari nagusia	1	A	F		X	55	99,10		35
Auditorea	4	A	F			55	99,10		10
Auditorea	1	A	F	C1		55	99,10		10
Legelaria	3	A	F			55	82,10		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	C1		55	82,10		
Informatikako goi-mailako teknikaria	1	A	F			55	82,10		
Sistema informatikoetako erdi-mailako teknikaria	3	B	F			55	67,00		
Auditoretzako teknikaria-Kontu-hartzailea	1	B	F			55	67,00		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	67,00		
Auditoretzako teknikaria	3	B	F	C1		55	67,00		
Administratzailea	1	C	F		X	55	74,50	12	
Administraria	5	C	F				62,68	12	
Administraria	1	C	F	C1			62,68	12	
Sistema informatikoetako ofiziala	1	C	F				62,68	12	
Zerbitzu Orokorrak	1	D	F	B2			53,00	15	
GUZTIRA	44								

F: funtzionarioa

P: lehendakaria

G: Kabineteko behin-behineko langilea, izendapen librekoa

2. eranskina

2025eko abenduaren 31n Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuan zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda

Kopur	Abizenak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
1000	Cabeza del Salvador, Ignacio	-	-	Lehendakaria	Jardunean
1001	Mitxaus Barberena, Ainhoa	-	-	Lehendakariaren idazkaria	Jardunean
1201	Contreras López, José	A	8	Idazkari nagusia	Jardunean
1101	Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Ángel	A	7	Auditorea	Jardunean
1102	García Logroño, José Javier	A	2	Auditorea	Jardunean
1103	Moreno Orduña, Karen	A	5	Auditorea	Jardunean
1104	Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	8	Auditorea*	Jardunean
1105	Lanpostu hutsa	A	-	Auditorea	Beteta –prestakuntzarako zerb. bereziak
1202	Lanpostu hutsa	A	-	Legelaria	Beteta –prestakuntzarako zerb. bereziak
1203	Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	6	Legelaria	Jardunean
1301	Erbiti Zabalza, Fermín	A	7	Kazetari-itzulzailea*	Jardunean
1401	Garbayo Sánchez, José Antonio	A	7	Informatika sistemetako goi mailako teknikaria	Jardunean
2201	Martínez de Estíbariz Ochagavía, Javier	B	6	Informatika sistemetako erdi-mailako teknikaria	Jardunean
2202	Lanpostu hutsa	B	-	Informatika sistemetako erdi-mailako teknikaria	Beteta / Zerbitzu eginkizunetan
2203	Lanpostu hutsa	B	-	Informatika sistemetako erdi-mailako teknikaria	-
2101	Balduz Gil, Elvira	B	8	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2102	Caños Hernández, Daniel	B	2	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2103	Etxarte Zambrano, Maite	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2104	García Cascante, M ^a Esperanza	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2105	Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2106	Landivar Roque, Irantzu	B	1	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2107	Marticorena Chapa, Javier Iñigo	B	7	Auditoretzako teknikaria	Auditorearen prestakuntzarako zerb. bereziak
2108	Martinkorena Matxain, Miren Edume	B	5	Auditoretzako teknikaria*/Kontuhartzailea	Jardunean
2109	Navarro Pérez, Saioa	B	2	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2110	Navarro Aristorena, Aitor	B	3	Auditoretzako teknikaria	Zerb. bereziak, beste administrazio batean
2111	Ondarra Erdocia, Rosario	B	2	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
2112	Rodríguez Jiménez, Ainara	B	4	Auditoretzako teknikaria*	Legelariaren prestakuntzarako zerb. bereziak
2113	Ruiz Remíez, Carlos	B	1	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2114	Sabaiza Navallas, Marta	B	2	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2115	San Martín Erice, Amaia	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2116	Sarasa Amatriain, Nuria	B	2	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2117	Sola Núñez, Miryam	B	1	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
2118	Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
2119	Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
3202	Lanpostu hutsa	C	-	Informatika sistemetako teknikari-ofiziala	Beteta - Administrazio-kontratua
3101	Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	8	Administratzailea	Jardunean
3102	Casado Redín, Cristina	C	8	Administraria*	Jardunean
3103	Lanpostu hutsa	C	-	Administraria	Beteta - Administrazio-kontratua
3104	García Fuentes, M ^a Dolores	C	7	Administraria	Jardunean
3105	Hernández Asiron, M ^a Mercedes	C	6	Administraria	Jardunean
3106	Lecumberri Zaratigui, Egipto	C	2	Administraria	Jardunean
3107	Fernández Fernández, M ^a José	C	4	Administraria*	Jardunean
4101	Lanpostu hutsa	D	-	Zerbitzu orokorrak*	Beteta - Administrazio-kontratua

* Euskararen ezaugariekin

**Lehendakariaren idazkari pertsonala

3. eranskina

Nafarroako Kontuen Ganberako plantilla organikoari atxikitako informazio osagarria

I. Kontuen Ganberako lehendakaria

Abizenak eta izena	Lanpostua	Aldia
Cabeza del Salvador, Ignacio	Lehendakaria	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra

II. Nafarroako Kontuen Ganberaren behin-behineko langileak 2025. urtean

Abizenak eta izena	Lanpostua	Aldia
Mitxaus Barberena, Ainhoa	Lehendakariaren idazkaria	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra

III. Nafarroako Kontuen Ganberak 2025. urtean kontraturiko langileak

Abizenak eta izena	Lanpostua	Kontratazio-modalitatea	Aldia
Maritorea Azkarate, Xabier	Zerbitzu Orokorrak	Administraria	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra
Dorremotzea Labiano, Arantza	Administraria	Administraria	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra
Ciordia Fillat, Carolina	Sistema informatikoetako ofiziala	Administraria	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra

IV. Nafarroako Kontuen Ganberan zerbitzu eginkizunetan 2025ean

Abizenak eta izena	Lanpostua	Aldia
Saiz Agustín, M ^a Dolores	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra

V. 2025. urtean zehar Kontuen Ganberaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduko 17. artikuluan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak egin dituzten funtzionarioak

Abizenak eta izena	Maila	Lanpostua	Prestakuntza	Maila	Prestakuntza-aldia
Marticorena Chapa, Javier	B	Auditoretzako teknikaria	Auditorea	A	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	Auditoretzako teknikaria	Legelaria	A	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra

